

BERTSOLARITZA, TRANSMISIOA

7.000 haur errimak ikasten

Bederatzi irakasle, horietako batzuk bertsolari oso ezagunak, Gipuzkoako 102 ikastetxetan ari dira bertsolaritzaren oinarriak irakasten, azken helburua hizkuntzaren erabilpena ziurtatzea delarik

25.04.09 - FELIX IBARGUTXII DONOSTIA.

DV. Badira zortzi urte Hezkuntza Arautuko Proiektua abiatu zuela Gipuzkoako Bertsozale Elkarteak. Helburua da ikastetxeetako haurrei -gela osoei, ez bakarrik zale direnei- ahozotasuna eta bertsolaritzari buruzko azalpenak ematea. Eta, era horretara, hizkuntzaren erabilpenean laguntzea eta - ahal den neurrian- neska-mutikoen harrobia ziurta-tzea bertso- eskolentzat.

2001ean hasi zen Hezkuntza Arautuko Proiektua. Laurehun neska-mutikorengana iristen zen eta Debagoienera mugatuta zegoen. Urtero hazten joan da eta orain ikastaroak 7.000 haurrengana iristen da egitasmoa, Gipuzkoako 42 herritako 102 ikastetxetara, hain zuzen ere.

Era guztietako ikastetxeetara iristen da proiektua, ez bakarrik Ikastolen Elkarteko ikastetxeetara edota D ereduan ari direnetara. 2.500 biztanle baino gehiagoko herriei dagokienez, ia denak ari dira Hezkuntza Arautuko Proiektuan; 40etik, 35. Herri txikiagoetan, berriz, askoz ahulagoa da proiektu hau. Nolanahi ere, esan daiteke Gipuzkoako Lehen Hezkuntzako D ereduko 4, 5 eta 6. mailetako ikasleen %80 murgildu dela proiektuan. Eta 2009-10 ikasturteko egitasmoa gauzatzen bada -hau da, Erreterria, Bergara, Legazpi eta Mutrikura ere heltzea- kopuru hori %90ekoa izango da.

Ideiak hobeto josteko

Helburua ez da umeak bertsolari bihurtzea. «Guk lantzen duguna da ahozotasuna eta bertsolaritza, eta lehen-lehenengo helburua da gure hizkuntzaren erabilpena ziurtatzea. Bertsolaritzaren bidez, ideiak nola josi lantzen dute, egoki hitz egiten laguntzen die...», adierazi digu Iñaki Olalde, Gipuzkoako Bertsozale Elkartean transmisio-lan hauetaz guztietaz arduratzen den koordinatzaileak.

Ludikotasunak garrantzi handia dauka. «Guretzako jarduera osagarriak oso garrantzitsuak dira, eta jarduera horiek izan daitezke ikastetxeen arteko topaketak, irteerak, bertso-bazkariak, udalekuak... Urtean 60 jarduera inguru antolatzen ditugu, eta laster, igandean, Bertso Eskolen Eguna ospatuko dugu Azkoitian».

Gipuzkoan zehar, bederatzi irakasle ari dira ikastetxez ikastetxe, horietako batzuk bertsolari ezagun askoak ere badirenak. Eta aurtan, lehen aldiz, lortu da irakasle bakoitza eskualde bateko arduradun jartzea. «Era horretara, ikastetxeetako hezkuntza ez ezik, bertso-eskoletako mugimendua ere indartuko dela uste dugu, irakasle bakoitzak ardura handiak baititu bere bailaran: Hezkuntza Arautuko, bertso-eskoletako eta jarduera osagarrietako arduraduna baita. Aurtan egin ditugu bailarakako lehenengo bilerak bertso--eskolekin», jarraitzen du Olalde. Hona hemen zerrenda: Oarsoaldean, Ander Lizarralde; Buruntzaldean Unai Muñoa; Donostialdean Aitor Mendiluze; Goierriin Amaia Agirre; Tolosaldean Bixente Gorostidi; Debabarrenean Iñaki Gurrutxaga; Debagoienean Nerea Urra; eta Urola-Kostan Jokin Uranga.

Eta Bertsozale Elkarteak zubi moduan ikusten ditu hezkuntza arautuko proiektua: «Nahi genuke interesa daukaten neska- -mutiko guztiek gero bertso-eskoletara salto ematea. Eta, halaxe, ahal den herri gehienetan bertso-eskola garatuak ziurtatzea. 'Bertso-eskola garatua' esaten diogu, kapaz denean herri mailako bertso-mugimendu guztia antolatzeko». Zein dira bertso-eskola garatua edukitzera iritsi diren herri



Donostiako Orixe ikastolako bi ikasle, bertso kantatzen Aitor irakaslearen ondoan. /MIKEL FRAILE

horiek? Hernani, Oñati, Mutriku, Zumarraga, Andoain, Arrasate... eta beste asko.

Lekuko izan gara, adibidez, Aitor Mendiluzek -Gipuzkoako egungo bertsolari txapeldunak- Donostiako Orixe ikastolan emandako eskola batena. Bosgarren mailako ume horiek *Zu ere bertsolari* izeneko liburua darabilte. Besteak beste, bertso batzuk buruz ikasi beharko dituzte urtero izaten den ikastaro-amaierako festarako. Liburu horretako unitate didaktikoak son handiko bi bertsolarik prestatuak dira: Unai Iturriaga eta Estitxu Arozenak, betiere Xabier Payaren koordinaziopean.

Bertso-eskolak ere bai

Hezkuntza Arautuko Proiektutik harago bertso-eskolak daude, ba-tzuk garatuak, besteak Bertsozale Elkartearen laguntza behar dutenak oraindik ere. Hauek dira Gipuzkoako bertso-eskoletako kopuruak: haur edo gazteen bertso eskola garatuak 40 dira, eta helduenak 38. Eta gainontzeko eskolak, garatuak ez direnak, berriz: helduen bertso-eskolak, 17; helduentzako bertso ikastaroak, 3; eta haur edo gazteen bertso-eskolak, 23.

«Guretzat, helduen eskolak benetan funtsezkoak dira. Aukeratu behar bagenu herri batean zer sortu, helduentzako eskola edo neska-mutikoentzako, jeneralean helduenetik hasiko ginатеke», dio Olalde. «Seguru asko, helduen-tzako eskolaren eraginez neska- -mutikoentzako sortuko delako geroago, heldu horiek izango direlako gero kapazak irakasle lanean jarduteko».

[Cuenta NÓMINA de ING DIRECT, VISA GRATIS](#)